

Terapia egiten

KRITIKA

ANTZERKIA
'GARRICK'

AGUS PEREZ

David Garrick XVIII. mendeko aktore ingeles bat izan omen zen eta garaiko sendagileek bera ikusteko gomen datzen zuten terapia bezala. Orain, Tricicle konpainiako kideek haren omenez hartu dute Garricken deitura ikuskizun berria izendatzeko.

Izan ere, euren aurreko lan gehienak gai nagusi baten inguruan planteatu dituzte —hegazkinen mundua *Exit*-en, terrorearena *Terrific*-en, kirolarena *Slastic*-en...—, eta oraingo honetan barrea bera da lanaren ardatza, horrek dakartzan interesa eta arriskuarekin, zeren eta, alde batetik, polita da barrea eragiten duten mekanismoak aztertzea, baina bestetik, barrearena nahiko gai lausotua da eta, berez, ez du behar den beste aitzakiarik ematen ordubete eta erdia betetzeko.

Gauzak horrela, nahiko esketx zozo batzuekin hasten dira Tricicle hiru lagunak, giroa berotu nahian edo, eta hurrengo sailean ederki menperatutako baliabide bat erabiltzen dute, pertsonaia desberdin asko elkarren segidan agertzearena alegia, baina hor ere mami gutxihoa da aitzakia —kalean, kasualitatez aurkitzen diren ezagunen arteko agur laburrak— eta hurrengo saioaren zain geratu gara ea motorrak benetan berotzen ziren. Dena den, hasieratik bertatik frogatu dizkigute beren betiko bertute eszenikoak: sinpatia, keinu zehaztasuna, barne karakterizazioarako abiadura eta inor mintzen ez duen lotsagabeke-ria puntu fina.

Emanaldiaren erdialdera etorri dira gaueko esketxik onenak, hala nola igogailuarena eta komiki

itxurako irudi estatikoekin egin dutena. Lehena taldearen betiko estiloan kokatu ahal dugu, baina bigarrena, ona izateaz gain, aurkikuntza eszeniko ederra iruditut zait. Gainontzeko atal guztiekin, zer esanik ez, ondo pasatu dugu eta irribarrea denbora guztian izan dugu ezpainetan, baina aretoa betetzen zuten ikusleak ez dira inolaz ere barrez lehertu, garai batean haiekin egiten genuen moduan. Emaiza horretan eragin zuzena dauka arestian aipatutako gaiaren eskastasunak, eta beharbada eremu eszenikoan paratu duten dekorazio astunak ere ez dio asko lagundu produktuaren bizkortasunari.

Amaitzeko, eskertzeko modukoa da taula gainean betiko hiruak agertu izana, Tricicle klonikoren ideia nahiko penagarria iruditzen zitzaidalako, eta oso polita iruditzen zait jendea kaleko ateetan eta banan-banan agurtzeko duten ohitura.



Gracia, Mir eta Sans aktoreak. **BERRIA**

Konpainia: Tricicle.

Zuzendaritza: Peni Barrachina.

Aktoreak: Joan Gracia, Paco Mir, Carles Sans. **Eszenografia:** Sebastia Brossa, Laura Garcia.

Lekua: Bilboko Arriaga antzokia.

Eguna: Irailak 19.

IESVS CHRIST
GVRE IAVNAREN
TESTAMENTV
BERRIA.



M. A. T. T. H. K. P. I. I.
Haut da ene Sans malina, cisman nare aipatu ene
herren baina, hani baka japatu gaitu.

BERRIAN.
Pauca Hauria, Impugnatio.
1574.

*Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria-ren barruko azala eta lehen orrialdea. **BERRIA***

Leizarragaren Biblia berriro argitaratu du Nafarroako Kutxak

Erakundeetan banatzeko edizio faksimile bat eta dendetan saltzeko edizio komertziala kaleratu ditu

ALBERTO BARANDIARAN
Iruñea

Nafarroako Kutxak Leizarragaren Bibliaren edizio faksimileak argitaratu du, «euskararen kultur erakunde garrantzitsuenen artean» banatzeko. Halaber, lanaren edizio komertziala kaleratuko du laster, kutxak berak atzo ohar baten bidez jakinarazi zuenez. Mila aleko edizioa izango da, 25 eta 30 urte bitarteko salduko dena.

Horretarako, Nafarroako Kutxak berak 1995ean, enkantean, erosi zuen originala baliatu dute. Faksimileko edizioa Finlandian

egindako 50 gramoko paper satinatuz egin dago, eta Xavier Kintanaren, Txomin Peillen eta Henrike Knorren hiru ikerketa gehitu dizkiote. Edizio komertzialak, bestalde, Fernando Perez-Ollo kazetariaren aitzinsolasa izango du.

Faksimilearen aleak Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari eman dizkio Nafarroako Kutxak.

JOANA ALBRETEN MANDATUA. Joanes Leizarragaren *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria* euskaraz argitaratutako bigarren liburutzat jo izan dute adituek beti, harik eta Juan Perez Lazarragaren idazkia azaldu zen arte. Bibliaren itzulpenaren egilea bera, ezezagun samarra da. 1525ean Bestoitzen jaioa, Lapurdin, 1560an protestante egin zen eta, Pauen, Joana Albret Nafarroako erregi-

nak Vulgataren euskarazko lehen itzulpena egiteko mandatu eman zion.

Lana 1571n argitaratu zen, Arroxelan (Frantzia), baina protestanteen aurkako jazarpenetan ale asko bahituak eta erreak izan ziren. Julian Vinson hizkuntzalari eta euskalariaren arabera, jatorrizko berrogei ale geratzen dira. Horien artean Koldo Mitxelena eta Telesforo Monzon fundazioen esku daudenak.

Nafarroako Kutxak 1995ean erosi zuen Bibliaren ale bat, Christie's etxe sonatuak antolatutako enkantean. Nafarroako Kutxarekin batera, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioak parte hartu zuen enkantean. Bi milioi pezeta (12.000 euro) izan zen hasierako prezioa. Azkenean, Nafarroako Kutxak 31,6 milioi pezeta (190.000 euro hor nonbait) ordaindu zuen.

Artetaren bi margolan erosi ditu Bilboko Arte Eder museok

ARTEA = Bilboko Arte Eder museok Aurelio Artetaren *Al mercado* eta *Sardinera sentada* oloioz egindako margolanak erosi zituen atzo, 227.182 eta 180.303 euroren truke, hurrenez hurren. Barakaldoko Munoa jauregia dekoratzen zuen sail batekoak dira bi margolanak, eta sail horretako beste hiru pieza ere baditu Arte Eder museok.

Salamancako paperen itzulera aurreratzeko eskatu dute

HISTORIA = Generalitateko kontseilari Joan Manuel Tresserrasek Salamancako artxiboko dokumentuen itzulera aurreratzeko bilera egiteko eskatu dio Espainiako Kultura ministro Antonio Molinari. Bestalde, gainerako erkidegoei ere euren dokumentuak itzultzeko EAJk egindako proposamena eztabaidatuko dute Madril.

Labah Sosseh 'Maisua' hil da, Afrikako lehen urrezko diskoaren aita

MUSIKA = Senegalgo abeslari Labah Sosseh hil da, 64 urterekin. *Maisua* ere deitzen zioten, eta musikako urrezko diskoa lortu zuen lehen afrikarra izan zen. Afrikako salsa interpretatzaile onenetakoa zen eta horregatik egin zenezagun XX. mende erdialdean, orduan hango musika taldeek jazz eta musika latinoa bakarrik jotzen baitzuten.

lapur zuloa

TOLOSA

21 ostirala **20:00**

Irailak

LEZARRA

ARTEA

BERRIA